

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Ezker Iraultzailearen aldizkaria

www.euskalherriasozialista.net

70 zenbakia - euro 1
laguntzarekin: 2 euro

Kolpe franquista Kataluniako herriaren aurka



Langileen eta gazteriaren Kataluniako errepublikaren alde!
Euskal Herria Sozialistaren alde!

2. Editoriala: Borrokak elkartu behar dira greba orokor baterantz • 4. Palestina • 9 Ikasleak errepresio frankistaren aurka • 10 Elkarrizketa: Productos Tubulares greba mugagabeen • 12 Catalunya

Kaleko mobilizazioak daukagun indar ikaragarria erakusten du

Borrokak elkartu behar dira greba orokor baterantz

Euskal Herrian mobilizazio benetan masiboak egon dira azken hilabeteetan. Milaka eta milaka gazte, langile eta pentsionista grinez eta geroz eta handiagoa den borroka animoarekin atera dira kalera. Martxoaren 8ko greba feminista, pentsiodunen etengabeko mobilizazioa eta M-17ko manifestazioak, hezkuntza publiko zein itunpekoan izan diren grebak eta beste hainbat lantegi eta sektoretako grebak (PT, ofizinak eta bulegoak, ospitaleak, hotelak, garraioa, supermerkatuak...) Euskal Herriko kaleak bete dituzte borroka sozialaren lehen lerroan kokatuz. Hemen, azpimarratzekoak dira noski errepresioaren aurkako mobilizazioak, Altsasuko gazteen alde eta euskal presoen dispartzioaren aurka gauzatu direnak besteak beste.

Langile klasea eta gazteria aurrera pauso oso garrantzitsuak ematen ari dira, geroz eta kontzientzia handiagoa hartuz dugun indar ikaragarria eta bidea kaleko borroka dela. EAJk krisitik irteten ari garela eta Euskadi bizi kalitate oneko oasi bat dela errepikatzen jarraitzen badu ere, propaganda hutsal hori bere kabuz erortzen da langile familien eguneroko bizitzan. Fabrika oso garrantzitsuak ixtea, langileen hitzarmenen aurkako erasoak, enplegu prekario eta zaborra (batez ere gazte, etorkin eta emakumeek pairatzen dutena) eta murrizketa sozialen politikekin jarraitzea da Hego Euskal Herrian EAJ-PSE gobernuak, enpresariak eta bankariak inposatzen duten benetako errealitatea.

Mobilizazioaren gorakada hori Catalunyan egoera lehergarri batekin eta gainontzeko Estatuan mobilizazioen gorakadarekin batera doa. 155aren bloke monarkikoak itsu-itsuan aurrerantz ihes egitea erabaki du errepresiorik gogorrena inposatuz eta frankismo garaiko nazionalismo espainolistaren kanpaina mediatiko batekin, PPek, Ciudadanosek eta PSOEek antolatua. Horrek ordea, haserre soziala elikatu besterik ez du egiten, bai Euskal Herrian, Catalunyan eta baita Estatu mailan ere.

EAJ 78ko erregimenaren eta euskal ustelkeriaren alderdia

EAJk, orain urte bete, Rajoyren gobernua salbatu zuen. Bere aurrekontuak babestu zituen eta legegintza guztian zehar horiek babesten jarraitzeko asmoa zuen, kupoaren negoziazioa erabiliz aitzakia gisa. Noski, berriro ere babestea gustutuko litzaioke inongo eskrupulurik gabe, baina herri katalanaren altxamenduak eta Euskal Herriko mobilizazioek oso posizio deserosoan jarri dute hori egiteko. Kaleko borroka izan da ezer baino hobe agerian utzi duena Rajoyren nahiz Urkulluren gobernuen benetako ahultasuna.

Zalantzarik gabe, Urkulluren EAJk bere esku zegoen guztia egin du Catalunyak procesa gelditzeko, eta 78ko erregimeneko Espainiaren egonkortasuna berrezartzeko. Ihesaren mehatxuaren enpresari katalanekin elkartu da eta baita Puig-

demontekin ere, dena bertan behe- ra utzi eta atzera egin zezan. Baina Catalunyak masen altxamendua eta erabaki irmoa oso urrun iristen ari da eta erreakzioak blokean erduzko zigorra ematea erabaki du: 155aren aplikazioa hasiera baino ez zen, gorakada errepresibo bat aurrera eramateko, herri oso bati motala ezarri eta umiliatzeko eta bel- durraren politika ezartzeko. Langile klaseari eta gazteriari mezu argia eman nahi zaio, Catalunyan bertan zein kanpoan.

155 blokeko hainbat sektorek EAJ "nazionalismo moderatua eta eraginkorraren" eredu gisa jarri nahi izan dute. Ciudadanosek bere alde- tik, behin eta berriz eta modu atze- rakoienean salatu du Euskadiko kontzertu ekonomikoa, publizitate kanpaina gisa, PPren hondoratze elektoraletik probetxua ateratzeko. Hori baliatuz, EAJk autogobernuaren eta Gernikako itunaren defentsa atera du bere bandera nagusi gisa. Baina hori maniobra bat besterik ez da, dagoen haserre soziala bere intere- setara eta euskal enpresariene- tara bideratzen saiatzeko. Argi bai- no argiago geratu da EAJk ez du- la inolako asmorik, kupoarekin edo kuporik gabe, zentimorik eskeintze- ko langile klasearen bizi baldintzak hobetzera. Bere diskurtso demagogi- koa agerian geratzen da, esate bate- rako, pentsiodunen aldarrikapenak babesten dituela esaten duenean, eta gero horiek gauzatzeari uko egiten dionean Eusko Jaurlaritzak badi- tuen mekanismoak erabiliz.



EAJk oso interes konkretuak ditu euskal instituzioak maneiatzean. EAEko ustelkeria kasuak geroz eta gehiago ari dira argitara ateratzen, eta erabiltzen den prozedura PPren berbera berdina den: EAJren finan- tzaziorako eta kargudunen poltsiko- rako erabiltzen diren %4 edo %10eko komisiok eta kontrolak gabeko di- ru-laguntzak. Martxan dauden epai- ketak, De Miguel eta Margüello ka- suak edota Epsilón, Bidegi, Hiriko, Margüello, Purines, Karrantza... kasuak icebergaren punta besterik ez dira. Prentsan argitaratu dena- rekin bakarrik kalkulatzeko da diru publikotik 5000 milioi euro galdu di- rela iruzurrezko kudeaketetan. Ho- ni iruzur fiskaleko 2.300€ gehitu be- har zaizkio, EHUk eginiko txosten

batean argitaraturiko datuen ara- bera eta EAJ-PSEk bankari egi- ni- ko zorraren barkatzea.

Greba Orokorrerantz

Euskal Herriko langile klasearen eta gazteriaren borroka tradizio hobere- nak geroz eta indar gehiago hartzen ari dira. Geroz eta gehiago gara siste- ma honetan guretzat ez dagoela alter- natibarik pentsatzen dugun langile eta gazteak. Beharrezkoa da borroka iraultzaile bat aurrera eramatea sis- tema kapitalistarekin amaitzeko eta gehiengoaren mesedetan funtziona- tuko duen gizarte sozialista bat erai- kitzeko. Posible da, programa iraul- tzaile batekin antolatuta eta kaleko borrokan aurrera pausoak emanda.

Horregatik, lehenbailehen egin beharreko betebeharrak bat dugu: bo- rrokak bateratzea eta greba oroko- rrerantz bidea hastea, borroka soziala maila gorenera eramango duena. Sindikatuek ardura ikara- garria dute bertan. Beharrezkoa da, langileen eta mugimendu sozia- len borroka koordinatzaile sortzea, demokratikoki eta modu asanblea- rioan funtzionatuko dutenak, eta bo- rrokak eta aldarrikapenak elkartze- ko, elkartasuna zabaltzeko balioko dutenak, bertan erabakiz nola ja- rraitu borrokarekin aurrera. Soilik bide horri eutsiz lortuko dugu Eus- kal Herriko langile eta gazteok za- palkuntza nazionalarekin eta sozia- larekin amaitzea.

**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Lagun iezaguzu aldezkarria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

www.euskalherriasozialista.net • euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 708 281
Twitter: @EHSozialista - @Ezklraultzailea • Facebook: Ezker Iraultzailea - Euskal Herria Sozialista

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!
Lagun iezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!
Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.

Netanyahuren gobernuak tiro katus erantzun ditu Gazako palestinarren mobilizazio masiboak

Setioarekin eta israeldar okupazioarekin bukatu behar da! Arazo nazionalari irtenbide sozialista!

BORROKA SOZIALISTA MUGIMENDUA
Israel eta Palestinako CIT

Netanyahuren gobernu ustel kapitalistak ejertzitoa eta 100 frankotiratzaileratzaile mobilizatu ditu Palestinara, Gaza eta Israelen arteko mugan egitekoa zen “Itzuleraren Martxa” erreprimitzeko. Martxa horrekin Lurraren Eguna ospatzen dute palestinarrak, gogora ekartzeko, 1976ko martxoaren 20an, Israelek lurak desjabetzen zizkien bitartean eraildako palestinarrak. Protesta honek Gazaren setioa bertan behera uzteko eskatzen zuen.

Soilik bi astetan, errepresioak gutxienez 34 hildako eta 2.500

zauritu utzi ditu, gehienak tiroz. Borroka Sozialista Mugimendua erakundeak (Israel eta Palestinako CIT) mobilizaziora deitu du gobernuaren probokazioen, zapalkuntza basati horren eta desarmaturik zeuden manifestarien erailketa basatiaren aurka. Halaber, gure elkartasuna adierazten diegu palestinarrei inposatutako baldintza basatien aurkako borrokari, egun Gaza munduko gartzelarik handiena baita, Israel zein Egiptoren etengabeko setioaren erruz.

Mehatxu eta errepresioaren gainetik, 20.000 eta 25.000 pertsona inguruk parte hartu zuten martxa horietan eta martxoaren 30eko mani-

festazioan, Gaza eta Israelen arteko mugatik gertu dauden sei hiritan. Netanyahuren gobernuak, komunikabide nazionalisten eta kapitalisten laguntzarekin, protesta “eraso terrorista basatitzat” hartu zuen. Beraientzat, eguneroko eraso militarrek eta bi milioi pertsona itotzen dituen setioak ez dira biolentoak; al-diz, egoera hori salatzen duten mobilizazioak “biolentoak” dira. Protestak indar militarrez jazartzearen helburua ez zen herritar israeldarren bakea babestea. Netanyahu-arentzat, protesten aurkako gerra hori aukera paregabea da israeldarren artean indartsua den segurtasunaren inguruko beldurra areagotze-

ko eta iritziz publikoaren arreta bere eta gobernuaren gainean dauden ustelkeria kasuen susmoetatik desbideratzeko.

Manifestariei horrela eraso egin dien erregimena arrisku ikaragarria da Israelgo gazteen eta langileen etorkizuneko borrokentzat, klase agintariaren zentsurari eta oposizioari aurre egingo dietenean. Israelen errepresio militarrek indarkeria areagotzea ekarriko du, eta zibil israeldarrei ere eragingo die. Garrantzitsua da, beraz, israeldar langile eta gazteek Netanyahuren gobernu odoltsuaren politikari aurre egitea eta protestetan parte hartzea.

AEBek beren enbaxada Jerusalem-eramaiteko probokazioaren ondoren, azken manifestazioa Nakba palestinarraren 70. urtemuga gogorarazteko hilabete eta erdiko maiztasunean planifikaturiko protesten kariatara egin zen; 1948ko gerraren ondorioz suntsitutako herriak, palestinarrak komunitate okupatuak eta 750.000 biztanlek jasan zuten deserritze behartua gogoratzea zen helburua. Datozen asteetan mitin eta protesta gehiago izango dira Gazan, Zisjordanian eta Jerusalemen, baina baita Jordanian, Sirian eta Libanon ere. Protesta ekimen horiek, Palestinako Mugimendu Nazionaleko frakzio batzuen babesarekin, palestinarrak errefuxiatuen aldeko mobilizaziorik handiena izango da, 2011ko

Nakba egunean, Udaberri Arabiarren berotasunean Israelgo mugetan izandako manifestazioez geroztik. Orduko hartan, hamabost manifestari erail zituzten eta ehunka zauritu.

Urteko lehen protesta eguna martxoaren 20an izan zen, Lurraren Egunean 1976an Israelen izandako eraso arabiar-palestinarra gogoratzeke, eta sei lagun hil zituzten tirokatuta. Era berean, bazko bezpera, martxoaren 30a, aitzakia izan zen beste behin Zisjordanian eta Gazako mugak ixteko; etengabea den gehiegikeria politikoaren eta zigor kolektiboaren adibide bat gehiago da. Palestinako manifestarien de facto exekuzio politikoak ere oso ohikoak dira.

Maiatzaren 15erako, Nakba Egunerako, aurreikusita dauden manifestazioek “Milioiko martxa” gainditzea dute helburu. Errepresio militarra gogor saiatuko da protesta mugimendu hori heda dadin eragozten, okupazio erregimenarentzat mehatxua baita masen borroka protagonista den eszenatoki bat, diktadura orotan gertatzen den bezala. Milaka eta milaka pertsonen mobilizazio hori protesta masiboa bilaka daiteke Gaza setiatzen duten hesietan; eta horren beldur da israeldar gobernuak, baina baita Hamas bera ere. Hamasek ez du inolako interesik bere kontrolatik ihes egiten duen masen borroka independente batekiko, masa palestinarrak gai baitira erakusteko Hamasek bere botere militar guztiarekin lortu ezin duena lor dezaketela, hau da, setioa eta okupazioarekin amaitzea.

Errepresio militarra kontuan izanda, ez dago garbi mugimendua noraino hedatzeke izango ote den datozen asteetan. Protestak antolatzen ari den taldea zabaltzeak lagundu dezake borroka indartzen. Bide horretan herrita-

rren batzorde demokratiko independenteak antolatu behar dira, bertan eztabaidatzeko eta erabakitzeke hurrengo mobilizazio urratsak eta manifestarien autodefentsa antolatzeko modua.

Beharrezkoa da Israeleko klase dominatzailearen maniobrei aurre egitea. Israeleko langile eta gazteak ezin dute Netanyahuren gobernuaren probokazioen engainuetan erori eta horretarako beharrezkoa da Palestinako manifestazioei elkartasuna adierazteko kalera ateratzea eta era berean Israeldar gobernu kapitalistaren, setioaren eta okupazioaren aurka mobilizatzea. Israelgo langile eta gazteen interesa da bakearen alde borroka egitea, eta besteak beste Nakbaren bidegabekeria historikoa onartzea.

Oinarri sozialistak dituen benetako alternatiba bat eraikita bakarri lortuko dugu palestinarrak zein israeldar langileen eta gazteen interesak defendatzea, bakearen alde borrokatzea eta benetako eraldaketa soziala lortzea: muturreko desberdintasunarekin bukatuko duen aldaketa sozialista behar da, errefuxiatuek itzultzeko aukera izan dezaten eta bizitzat, segurtasun, ongizatea eta eskubide guztiak berma daitezen, nazioen arteko diskriminaziorik gabe.



KONTRAPORTADAN HASTEN DA

Llanera epailearen probokazio erre-presiboen aurrean. Jordi Turull (Generalitateko president izateko azken hautagaia), Carme Forcadell, Marta Roviraren erbestea eta Alemanian Carles Puigdemont atxilotzeak ehunka milaka atera ditu kalera, batez ere Errepublika Defendatzeko Komiteek (CDR) eginiko deia jarraituz. Jendetzaren aurka diskriminaziorik gabe kargatu duten Mossoen erantzun bortitzaren gainetik, manifestazioak eredugarriak izan ziren eta 'Llibertat presos politics' eta 'Vaga general' izugarritzko grinez eta indarrez oihukatzen ziren.

Begi bistakoa da PPren gobernuak eta estatu aparatuen aurrerantz itsuan ihes egitera erabaki dutela, herri oso bati mozala ezartzeko. Pentsiodunen protesta masiboei eta pasa den martxoaren 8ko greba orokorrak Rajoy jauna kinka larrian ezarri dute. Geroz eta zailagoa zaio geroz eta handiago den eta eztanda sozial berri bat bihurtu daitekeen saminari aurre egitea. Gainera, hauteskunde sondeoei aurreikuspen okerrenak erakusten dituztenean, prest dago Albert Riveraren eta Ciudadanosen presioari nola-hala aurre egiteko. Ihes egiteko modua, eta hauteskundeetako babesa berreskuratzeko modua, berriz herri katalanaren aurka egitea da, nazionalismo espainolistaren karta jokatuz ahalik eta gehien. Baina estrategia honetan, kalkuluak oso gaizki ateratu daitezke.

Estatu aparatuen eta PPei de-seinaturiko iruzur judiziala urriaren 1eko erreferendumean demokratikoki adierazitako borondatea zapaltzeko erabilia ari dira (2.100.000 bozka eman zituena errepublika katalanaren alde, Catalunyako Estatutak 2006eko erreferendumean lortu zuena baino gehiago). Horretaz gain, A-21eko hauteskundeetako emaitzak indargabetzeko ere erabiltzen ari dira, PPrentzat kolpe handia izan zena eta gehiengo absolutua eman ziona berriz independentismoari.

Iruzur judizial hori Estatuko Fiskal Orokorraren kereilarekin hasi zen urriaren 30ean, urriaren 1eko mobilizazio demokratiko izugarri hura eta Catalunya gelditu zuen greba orokorra "altxamendu biolento" gisa hartuz, "errebolta eta sedizio" delitu izateko aukera planteatu zuen. Maza fiskalak lehenik, Lamela epaileak

Kolpe frankista Kataluniako herriaren aurka Greba Orokorra lehenbailehen!

Preso politikoak askatu!

Langileen eta gazteriaren Kataluniako errepublikaren alde!



ondoren eta Llanera epaileak erabili dituzten muturreko argumentuak Catalunyako herriaren masen mobilizazioak 1981eko Otsailaren 23an pistolak eskuan parlamentu espainiarra asaltatu zuen kolpe faxistarekin edota atentatu terroristekin eta hiltzaileek eta mafiosoek egindako krimenekin alderatzen ditu. Horrela funtsatu dute juridikoki Jordiari, Guberneko consellersak, Puigdemont barne espetxeratzeko autuak, Parlamentara hautetsiriko diputatu gisa joateko eta Generalitatea presiditzeko proposatuak izateko eskubidea ukatuz. Kolpe batez, herri katalanaren subirautea erabat ezabatua izan da.

Atxilotetak agintzeko Llanera epaileak erabilitako argumentuak hain izugarriak dira ezen, NBEko Gi-

za Eskubideen Batzordeak eta Amnistia Internazionalak gehiegikeria hori salatu behar izan duten. Nork erabili ditu armak eta biolentzia Catalunyan? Erantzuna denok dakigu: 78ko erregimenak, bere gobernuak eta Estatuak, 10.000 polizia eta guardia zibil baino gehiago bidali zituzten, bozka eskubidea modu baketsuan gauzatzen genuen milioika pertsona modu basatian kolpatzeko.

Ofentsiba hori ez da Kataluniaren aurkakoa bakarrik. Adierazpen askatasunaren eta eskubide demokratikoen aurkako erasoak gainontzeko Estatu guztira zabaltzen dira. Artistak, raperoak eta twitteroak erregea kritikatzeko nola kartzelaratu dituzten ikusi dugu, AVEa lurperatzearen kontra Murtziako manifestarien aur-

kako errepresio basatia, Mozal Legearen ondorioz edo gorroto delituaren aitzakia erabilia ezkerreko ekintzaileen aurka dauden prozesu eta kereila guztiak. Aldiz, eraso faxistak, ehun milaka emakume erailten duen biolentzia matxista, eta PPko eta erregimeneko politikarien ustelkeriak inpunitate osoa dute.

Ezker Batuko, Podemoseko eta sindikatueta buruzagien ardura

CCOO eta UGTko buruzagiek Catalunyan eta estatu mailan, ibilbide autoritario hori gelditzeko mobilizazioak deitzeari uko eginez, arnas paregabea eman diote PPren gobernuari eta praktikan 155aren aplikazioa babestu dute.

Langile klase katalanaren eta estatu mailakoaren artean egiazko sena dago PPren eskutik ezin duela ezer onik etorri pentsatzen duena. Baina kanpaina espainolistak nahasmena sortu du, lehenik eta behin blokean PSOEko buruzagiak daudelako, eta baita iraganean "komunistak" definitzen ziren hainbat ere, Paco Frutos adibidez, PCEko idazkari orokor ohia. Orain bandera rojigalda astintzen du modu patetikoan. Horien guztien ardura erreazioaren errepresio lanak erraztean ikaragarria da.

Ezker Batuko eta Podemoseko zuzendaritzatik ere politika okerra mantendu dute, nahasmen hau elikatu eta eskuinari maniobratzeko tarte zabaltzen diote. Alberto Garzonek errepresioa erabiltzen duen eta 155a

aplikatzen duen Estatuak, eskubide demokratikoen alde eta errepublika bat nahi duen herriarekin alderatu du. Garzonek preso politikoak egotea ukatu du, masa katalanen borroka elite ekonomikoen "maniobra" gisa kalifikatu du, hain zuzen ere burgesia katalana espainiarrarekin eta estatu aparatuekin aritu denean mugimendua zapaltzeko. Garzon posizio marxista eta iraultzaile baten kontrako muturrean dago.

Pablo Iglesiasek ere uko egin dio autodeterminazioaren eta errepublika katalanaren aldeko mugimenduaren aurrean jartzeari. Borrokatzen duen herri bati "faxismoa esnatzea" egotzi dio eta behin eta berriz esaten jarraitzen du beharrezkoa dela Estatuarekin eta PPrekin "erreferendum" bat ituntzea erabakitzei eskubidea posible egiteko. Akaso Pablo Iglesias ez al da ohartzen ofentsiba errepresibo hau elkarriketarako edozein aukera guztiz ukatzea dela? PSOEko bloke monarkikoarekin dituen loturak hausteko egin dituen eskariak jada Pedro Sanchez eta bere kolaboratzaileek erantzun dituzte mespretxuz, erabat PPren menpe baitaude.

Unidos Podemoseko zuzendaritzak 180 gradu biratu behar du eta borroka honetatik ihes egiteko politikarekin amaitu. Betebehar bat du Catalunyako herriarekin, PPren eta bere autoritarismoaren aurka lehen leherroan dauden langile eta gazteak bertan behera ez uzteko. Azaldu behar dute gaur Llanera epaileak, 155aren blokeak eta komunikabide espainolistek Kataluniako errepresioa justifikatzeko erabiltzen dituzten argumentu berberak erabiliko dituztela beste protesta sozialak ere altxamenduz salatzeko eta atxilotetako aurre-eramateko: pentsionisten mobilizazioak antolatzen dituztenak, M-8a bezalako grebak eta Lavapiaseko bizilagunek arrazakeriaren eta biolentzia polizialaren aurka eginiko mobilizazioak, etab.

78ko erregimen frankistaren kolpea gelditu: Greba Orokorra lehenbailehen!

Ez da kasualitatea eraso basati hori gertatzea ERC eta Junts per Catalunyako buruak hilabeteak daramatzatenean kaleko mobilizazioa dese-



giten eta PP eta Estatuarekin elkar ulertze zubiak bilatzen. A21ko hauteskundeetan 155 blokea garaitu ondoren, milioika pertsonen plan garbi eta sendo bat espero zuten errepublika mobilizazioaren bidez gauzatzeko. Horren ordez, JxCat eta ERCko politikari burges eta burges txikiak epaitegietan esaten zuten errepublikaren aldarrikapena erabat sinbolikoa izan zela, 155a akatatzen zutela eta Estatu gehiago ez probokatzen eta “instituzioak berreskuratzeko” beharra planteatzen zuten.

Klase arteko borrokan, ahultasunak beti dei egiten dio erasoari. Burgesia katalana eta espainiarra oso kontziente dira Catalunyan gertatutakoa benetako krisi iraultzaile bat dela eta hori deuseztatzen saiatu dira espetxeratze eta prozedura mordoaekin, 155a aplikatuz eta hauteskundeak deituz gehiengoa lortzeko. Baina herri katalanaren borondatea eta erabakia beren planak zapuzten ari dira. Orain, berriz errepresio gogorrenera jotzen dute independentismoko buruen aurka: mugimenduari beldurra sartu nahi diote eta gainontzeko Estatuako langile eta herritarrei mezu bat bidali. Baina urrunegi iritsi dira.

Martxoaren 25eko gauean, milaka eta milaka pertsona preso politikoen askatasunaren eta greba orokorren alde entzun ostean, Parlamenteko presidentek Roger Torrentek dei egiten zuen fronte bateratu bat osatzera demokraziaren defentsan eta kontaktuak iragarri zituen indar independentista guztiekin, ezker ez independentistarekin eta sindikatuekin erantzun bateratu eta irmoa planteatzeko.

Begi bistakoa da, hitzez haratago, Torrenten deialdiak, ERCko buruzagien deklarazioek bezala, helburu gisa egoera “egonkortuko” duen eta kaleko borrokarekin amaituko duen gobernu katalan bat osatzea duela. Horregatik hain zuzen ere, ezin gara politikoki subordinatu hilabeteetan zehar erabateko pasibotasuna erakutsi eta erregimeneko alderdiekin itunak berrezartzeko nahia agertu duten horien menpe, errepublika katalanaren aldeko borroka sakrifikatzearen kontura. Prozesuaren zuzendaritza Catalunyako askapen nazionaleko mugimenduaren benetako motorra izan denak hartzeko ordua da, borrokan dauden masek alegia, gazteriak eta langile mugimenduko sektore aurreratuenek.

Bai, fronte bateratu bat altxatu behar da CDRetatik, CUPetik, ANC, Omnium eta Catalunya en Comúko oinarri militantetik, klaseko sindikalismo borrokalaritik, borrokatzen duen ezkerretik eta mugimendu sozialetatik, lehenbailehen deitzeko 24 orduko greba orokorra, mobilizazio masiboe kin batera. Greba orokor horrek, egun PPren gobernuaren aurka borrokan dauden sektore guztiak elkartu behar ditu, marea feministatik eta pentsionistetatik hasi eta ikasleak arte. Preso politikoen askapena aldarrikatu behar da, prozesu judizialak eta 155a indargabetzea, eta Rajoyren gobernuaren dimisioa. CCOO, UGT eta Unidos Podemosi interpelatu behar die greba orokorrak, Estatuako lurralde guztietan modu argian babestu dezaten, elkartasun mobilizazioak antolatuz herri katalanaren alde eta gorakada autoritarioaren aurka.

Noski, greba orokorra pauso erabakigarria izango da, baina gero borroka zabalduta jarraitu behar da, greba eta mobilizazio berriei errepresioa garaitu izan arte, preso politikoak askatuak izan arte eta bere osotasunean eskubide demokratikoak berrezarri arte Catalunyan, errepublikaren aldeko U1eko erabaki demokratikoa praktikara eramatea barne.

Ezker Iraultzailetik, uste dugu askapen nazionaleko mugimenduaren betebeharrak bat dela langile klase katalan indartsuaren osotasunaren babesa irabaztea, Catalunya kanpotik iritsitako langile erdaldunak barne. Horien gehiengo zabala PPren ustelkeriaren eta murrizketen aurka da, eta milaka mobilizatu ziren urriaren 1ean eta 3an errepresioaren aurka; baina mesfidati ikusten jarraitzen dute procesa PDeCATEko buruzagi burgesek jokatzen duten paperagatik eta Convergencia eta ERCek Gobernetik aplikatu zituzten herztura politikengatik, pribatizazioak, murrizketak, etab.

Langile sektore horiek errepublikaren kausara irabazi daitezke eta

paper erabakigarria joka dezakete eskuinaren eta 155aren blokearen aurkako mobilizazioan. Baina horretarako ikusi behar dute langileen, gazteen eta herriaren errepublika baten aldeko borroka dela, eta ez Catalunyako enpresarien eta oligarkiaren aldekoa. Errepublikaren aldeko borroka elkartzen bada milioiak egunero jasaten ditugun arazo konkretuei erantzuna emango dien programa batekin, modu erabakigarrian kapitalismoaren logikarekin apurtuko duena eta gure lan eskubideak eta eskubide sozialak bermatuko dituena, gazteriaren etorkizuna barne, orduan lortuko dugu demagogia espainolista geldiaraztea eta beldurraren kanpaina garaitzea. Hori da irabazteko bidea.

Denak greba orokorra prestatzera!



Catalunyako ikasleak errepresio frankistaren aurkako borrokaren lehen lerroan apirilaren 26ko greba eta mobilizazioekin

Euskal Herrian elkartasun eguna antolatu dugu

Aski da, gazte eta langileon borrokaren kriminalizaziorik ez!

IKASLE SINDIKATUA

PPren gobernu, Ciudadanosen eta PSOEko buruzagien babesarekin eta Estatu aparatuekin batera diktadura garaitik ikusi gabeko gorakada errepresiboa aurrera eramaten ari da gure eskubide demokratikoen aurka. Apirilaren 26ean Ikasle Sindikatutik borroka eguna deitu genuen Euskal Herrian, Katalunian errepresio frankistaren aurka Sindicat d'Estudiantsek deituriko grebarekin elkartasunean, gure eskubide demokratikoak defendatzeko eta Altsasuko kasua bezalako errepresio eta muntaia polizialen aurka.

Katalunian, Euskal Herrian zein estatu mailan Espainiar gobernuak eta estatu aparatuek gazteon eta langileon aurka daraman errepresio boladak helburu argi bat du: langile familien aurka mota guztietako eraso eta murrizketak inposatu nahi dizkigute, horren aurka ahotsa altxatzea eta borrokatzea kriminalizatuz. Gure ikastetxeetan ere gertatzen da. Zuzendaritzek eta Eusko Jaurlaritzak geroz eta gehiago erasotzen dute gure greba eskubidea modu isil batean. Bitartean, eraso faxista basatiek, eskuak bete dirua lapurtzen duten PPko kargu ustelek, enpresariak eta bankariak erabateko inpunitatea dute.

Murrizketa gehiago hezkuntza publikoari eta ikasleak “espainolizatu” Mendez de Vigo dimisioa!


Testuinguru honetan, PPren gobernuak areagotu egin du hezkuntzan LOMCEarekin frankismo garaiko hezkuntza eredua ezartzeko eta gu “espainolizatzeko” plana. Gobernu

buruen joera frankistak ez du disimulorik. Pasa den Aste Satuan Malagako prozesio batean Legioaren *Soy el novio de la muerte* ereserkia arnas beatean kantatu zuten PPren gobernu lau ministrok: Maria Dolores de Cospedal, defentsa ministroa; Rafael Catalá, justizia ministroa; Juan Ignacio Zoido, barne ministroa eta Iñigo Méndez de Vigo, Hezkuntza, Kultura eta Kirol ministroa eta Rajoyren gobernuko bozeramailea.

Rafael Hernandok, PPren bozeramaileak, prentsako galderei erantzunez, kanta faxista hau “gure kultura tradizionalaren ohiturak direla” esanez justifikatzen zituen ministroak. Ez, Hernando jauna, ez da gure kultura eta frankismo eta faxismoaren apologia egiteak ez du zerikusirik kulturarekin.

Soy el novio de la muerte kantak fama hartu zuen Legioan abesteko erabiltzen zuelako Jose Millan-Astray, erakunde militar honen sortzaileak eta Frankoren lagun intimo eta kolaboratzaileak. Ereserki honek sinbolizatzen duena Ejerzito Franistak milaka pertsona errugaberen aurka eginiko sarraskia da.

Hitz egin dezagun bada kulturaz. Millan-Astray, Legioaren sortzaileak, uztailak 18ko kolpistarik krudele naizateaz gainera, famatua egin zen 1936ko urriaren 12an Salamanakako Unibertsitateko Miguel de Unamuno errektorearekin izan zuen hika mikagatik. Paraninfoko ekitaldi batean apezpikuek eta militarrek ideologia frankista hauspotu ostean eta “Euskal Herria eta Katalunia nazioaren gorputzean bi minbizi zirela” aipatuz, Unamunok hitza hartu zuen erantzuteko: “Irabaziko duzue, baina ez kontentzitu” esan zuen. Millan-Astray



altsatu eta zera ohikatu zion: Espainia, bat, handia eta libre! Hil daitezela intelektualak! Gora Heriotza!

PPren gobernuak areagotu egin nahi du hezkuntzan LOMCEarekin frankismo garaiko hezkuntza eredua ezartzeko eta gu “espainolizatzeko” plana. Iñigo Mendez de Vigok, ikasgai berriak adostu ditu Defentsako ministroarekin: indar armatuen, monarkia- ren eta sinbolo espainolen gurtza ezarri nahi dute ikasgeletan, ikasleek *La Bandera* abestuz ikastetxe guztietan.

Ikasleok borroka gogorra eman dugu LOMCE eta hemen Heziberriren inposaketaren aurka, murrizketen aurka eta 3+2aren aurka. Aurreko urtean, errebalidak gelditzearen garaipenarekin gazteok erakutsi genuen grebak eta kaleko borrokak benetan balio duela. Mendez de Vigoren dimisioa exijitzen dugu, eta baita Cristina Cifuentesena ere. Langile familetako seme alabei goi mailako hezkuntza ukatu nahi digute, karre- rak izugarri garestituz eta bekak murriztuz eta beraiei masterrak erregalatzen dizkie. Garrantzitsuenaren ordea, kaleko mobilizazioaren bidez gobernu frankista hau azpiratetik hasi eta bide hori jarraituz politika kapitalista guztiekin behin betiko amaitzea da.

Kanpora 155! Errepresio frankistatik ez!

Productos Tubulares greba mugagabea

**Kaleratze bakar bat ere ez!
STOP prekarizazioa. Hitzarmenaren defentsan
Pauso bat ere ez atzera!**



Productos Tubulareseko langileak martxoaren 8tik greba mugagabea daude. Benetan borroka eredugarria eta indartsua ematen ari dira Bilboko eta ezker aldeko kaleetan. Ezker Iraultzailetik Karmelo Yanezi elkarrizketa egiteko aukera izan dugu, PTko langilea. Eskerrik beroena eman nahi diogu Karmelori eta gure babes eta elkartasun osoa eman PTko langileei. Zuen borroka gurea eta langile guztiona da.

• Nola hasi zen gatazka PTn?

Gatazka orain dela bi urte hasi zen. Enpresak ERTE bat sartu ziren, galerak argudiatuz. Amaitu zenean eta eskariak sartzen hasi zirenean lan egiten jarraitu dugu, ez eskari gehiegirekin, baina bai tubo fabrikazio kopurua, POA, betetze-ko adina.

Enpresak errua energiaren eta txatarraren prezio garestiari bota-

tzen dio, edo gehiegi kobratzen dugula esateko ausardia du. Entzun beharrekoak. Gutxi balitz, azkena, errua Trumpen arantzelei botatzea izan da, guk AEBra %12a bakarrik esportatzen dugunean. Gezurra. Hasieratik enpresak ez dizkigu kontuak erakutsi, gauzak gorde ditu... gaurko egunera arte.

• **Nondik datoz planteatzen dituzten galerak? Zer gertatu da irabaziekin?**

Egoera hau atzeragotik begiratu behar da. PT da egun Babcock izan zenetik geratzen den bakarra, 5000 langile izatera iritsi zen enpresa. Hori likidatzen joan ziren. PSOE guztiz errudun. Gure lantegia al daketa azkarrekin funtzionatzen hasi zen, instalazioak egokituz, ikerketa askorekin eta batez ere langileen lanarekin. 15 urtetan behintzat irabaziak izan ditugu.

2008an 170 milioi euroko mailegua eskatu zioten bankuari, Condesa enpresa erosteko. Azkenean, ez zen erosi. Baina dena oso ondo zebilenez beraientzat, zati bat inbertitu zuten eta beste guztia akziodunen artean banatu dibidenduetan. Zor hori handituz joan da eta orain itota gaude. Bi urte daramatzagu galerekin, eta ondorioak guk ordaintzea nahi dute.

Arreko zuzendaritza oso erruduna da. Abasolo jaunak, 2015eko Korta saria eman ziotena (Euskadiko enpresaburu hoberena), taldea 200 milioiko zorrarekin utzi du eta hemen inork ez du ardurarik. Orain dugun presidenteak, Guillermo Ulacia jaunak, antzeko egoeretan egon diren enpresak eraman ditu iraganean eta dena murrizketen bidez. McKinsey aholkularitza enpresa kontratatatu dute, dirutza kostatzen dena eta hori ari da kalera-tu beharreko aginduak ematen. Ez dira tailerrera joan, ez dute langileekin hitz egin, ekoizpena nola hobetzeko etab. Nagusiekin hitz egi-



ten bakarrik egon dira, kaleratzeak eta erasoak prestatzeko.

• **Zein dira greba mugagabera eraman zaituzten arrazoiak?**

Aplikatuko zituztela adierazi zituzten neurriak. Lehen bileran dena eskatu digute. Lehenik eta behin 157 kaleratze eta lan hitzarmena erabat aldatzea. Urteetan guk eta aurretik zeuden langileek borrokatu dugun guztia lurpera bota nahi dute. Urteko lan egunak handitu nahi dituzte, atsedenaldiak erdira murriztu, oporrak murriztu, erreleboak eraldatu, egunez dagoen jendearen janaria beraiek ordaindu dezatela... Soldata %25 jaitsi... Dena nahi dute.

Altzairu fabrika ere itxi nahi dute. Guretzat fabrika hau funtsezkoa da, instalazioak al daketa oso azkarrak egiteko prestatuta dauzkagulako, eta altzairutegiak material horiek galdu eta eskaintzen dizkigu. Guk altzairu fabrikaren itxiera enpresa guztia- ren ezkutuko itxiera prestatzeko mugimendu gisa ikusten dugu.

• **Eta Eusko Jaurlaritzatik?**

Lotsagarria da. Industria guztia pikutara bota nahi dute eta EAJko Urkullu honek ez du ezer egiten. Guggenheim aurrera joan ginen protestan, euskal eredu industrial espertatzeko G20ko ordezkariarekin bilerazutenean. Komiteko presidentea Urkullurengana joan zen gure egoera azaltzen zuen orri bat irakur zezan eta zera erantzun zion: arratsaldean Ulaciarekin egongo zela eta orria emango ziola. Zer espero be-

har dugu hortik? Arratsaldean Ulaciarekin zen lehen bilera eta ez zen azaldu ere egin. Nire ustez horregatik ez zen joan.

Aurreko batean Eusko Jaurlaritzaren industria delegaritzara joan ginen eta hartu gintuzten. Neurriak ikusi arte ezin zutela ezer egin esan ziguten. Hor dituzte neurri guztiak, ea orain zer egiten duten. Zer gingo dute bada... ezer ez. La Navalekin edota ACBekin egin duten gauza berdina, ez dute ezer egingo. Lotsagarria da nola ari diren Euskal Herriko industria ondoratzen.

• **Nola garatu dira mobilizazioak orain arte eta nola jarraituko duzue?**

Langileak oso elkarturik gaude. Inoiz ikusi ez dudana bezala. Haste-ko greba komiteak sortu dira, ekitaldi eta protesta guztiak antolatzeaz arduratu direnak. Manifestazioak burutu ditugu Amurrión, Bilbon Sestaon... Egutero dago mobilizazioen bat eta beti dago langile talde bat fabrika sarreran inor sar ez dadin. Inor ez da ari sartzen saiatzen. Gutxiengo zerbitzuak jarri dituzte, neurri kanpokoak eta zentzugabeak, baina gainera ez diete ordaindu bertan egon behar izan dutenei ere. Amurrion joan ginenean TRko langileek gurekin elkartasunean bi orduko geldialdia egin zuten.

Nire ustez enpresa erabat ezustean harrapatu du greba mugagabea honek eta egiten ari garen guztiak. Ez zuten espero langileak hain elkarturik egotea eta 29 egunen on-

doren orain egiten ari garen moduan jarraitzea. Mobilizazioak, ahal ditugun guztiak egingo ditugu, orain arte bezala.

• **Zein aldarrikapen ari zarete defendatzen?**

Momentuz hori guztia atzera bota dezatela eta hitz egitera eser daitezela. Baina enpresak ez digu ezer esaten, ez du zorra esaten, ezta interesetan ordaintzen ari garena ere.

Ez dugu iraungitze espedientea onartuko ezta kaleratzerik ere. Beraiek esan dezatela egia, nola heldu garen hona. Enpresa honetan heriotza istripuak egon dira, konplexua da eta makinaria asko dago toki gutxian. Jendea kaleratu nahi dute eta gehiago lan egin dezagun. Segurtasuna jaitziko da, prekaritatea eta arriskua igo eta ez zaie ezer inportatu. Guk geure aldetik mobilizatzen eta borrokan jarraituko dugu.

Azken albisteak

Elkarrizketa hau apirilaren 5ean egin zen. Jakin berri dugu, apirilaren 17an, langileen borroka itzelari esker enpresak atzera bota behar izan duela EEEda eta planteaturiko erasoak. Garaipen benetan garrantzitsua da hau. Borroka balio duela erakusten du eta langileak konfiantzaz betetzeko eta enpresak planteatu ditzaken eraso berrien aurrean tinko mantentzeko balio behar du. Jo ta ke!

Kolpe frankista Kataluniako herriaren aurka Greba Orokorra lehenbailehen!

Preso politikoak askatu!

Langileen eta gazteriaren Kataluniako errepublikaren alde!

ESQUERRA REVOLUCIONÀRIA

78ko erregimen autoritarioak, bere estatu aparatua eta hori sostengatzen duen alderdiek (PP, Ciudadanos, PSOEko buruzagiak) kolpe berri bat eman dute Katalunian demokrazian eta askatasunen aurka. Independentismoaren aurka kausa orokorra ireki da, diktadura frankistak "errepublikaren eta komunismoaren aurka" ireki zuenaren eredua jarraituz.

Autonomia katalana baliogabetu du, Carles Puigdemont atxilotu dute eta 25 buru independentista auziperatu dituzte, horietako asko kartzelaratuz, epaiketak eta fidantzarik gabe.

Ez dago zalantzarik: bloke monarkiko espainolistak ez ditu onartzen abenduaren 21eko hauteskundeak emaitzak eta prest dago, kosta ahal kosta, herri katalanaren aspirazio errepublikarra zapaltzeko. Ka-

talunia salbuespen egoera frankista baten menpe dago.

Ordu erabakigarri hauetan, erregimen autoritario honekin konprometiturik ez dagoen ezker politiko eta sindikal guztiak ahalik eta mobilizazio indartsuena eta batuen bultzatu behar du. Ez dira nahikoa deklarazioak eta komunikatuak, eta askoz gutxiago "elkarriketarako" deialdiak, diktaduraren zulora eraman nahi gaituen gobernu baten aurrean. Greba orokorra deitu behar da berehala Katalunian preso politikoen askapena, 155a amaitzea eta errepublika exigituz. Eta Euskal Herriko nahiz gainontzeko Estatuko langileek eta gazteek herri katalana babesteko betebeharra dugu, gure indarrak euren indarrekin elkartuz, behin betikoz Rajoyen gobernu eraisteko.

Antolatu zaitez

EZKER 
IRAULTZAILEAN

**Euskal Herria Sozialista baten
alde borrokatzeko**

**Katalunia ia diktadura
baten menpe**

Gazteak eta Kataluniako herriak indartsu erantzun du Estatuaren eta

6. ORRIAN JARRAITZEN DU

- Kanpora 155a! Preso politiko guztiak askatu. Kanpora Polizia Nazionalaren eta Guardia Zibilaren indarrak Kataluniatik.
- Lan eta pentsioen kontraerreformen indargabetzea. Jubilazioa 60 urtetara soldataren %100arekin eta errelebo kontratuak gazteentzat.
- 1.100 eurotako gutxiengo soldata eta 35 orduko lanaldia astean, soldata murrizketarik gabe.
- Etxe kaleratzeak debekatzea. Etxebizitza publikoen parkeak alokairu sozialekin, bankuen eskuetan dauden etxebizitzak desjabetuz.
- Pribatizaturiko zerbitzu publikoak bermunizipalizatzea, langileak mantenduz eta ugarituz eta lan eskubideak errespetatuz.
- LOMCE eta 3+2 kanpora. Kalitatezko hezkuntza publikoa, demokratikoa eta doakoa, haurtzarotik unibertsitatera arte.

- Osasungintza publiko duin, doako eta unibertsalerako eskubidea.
- Benetako elkartasun konkretua errefuxiatuekiko: kuporik eta barneratze esparrurik ez. Atzerriko Legearen indargabetzea eta CIEak ixtea.
- Adierazpen, bilera eta antolakuntza eskubideak osorik bermatzea. Mozal legearen indargabetzea.
- Bankaren eta sektore estrategikoen nazionalizazioa, pertsonak erreskatatzeko eta gehiengoaren ongizatea bermatzeko.
- Autodeterminazio eskubidearen alde, Katalunyan, Euskal Herrian eta Galizan. Errepublika sozialista katalanaren alde, eta errepublika sozialista federal baten alde, Estatu espainiarra osatzen duten herrien eta nazioen batasun libre eta boluntarioan oinarritua, horrela erabakitzen badute.